BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1322

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 6koa, Energia eta Meategien zuzendariarena. Honen bidez, Usurbilgo, Donostiako, Aiako, Zarauzko, Getariako, Zumaiako, Zestoako, Aizarnazabalgo eta Azpeitiko udalerrietan Usurbil-Lasao 30 kV-ko aireko linea elektrikoa eta horren deribazioak onura publikokoak direla deklaratzen da. Esp.: RI 24073/AT-H-2011-52.

AURREKARIAK

Bat.– 2011ko apirilaren 15ean, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak (helbidea: Mikeletegi pasealekua 1, 3, Donostia-San Sebastián) arestian adierazitako linea onura publikokoa dela deklaratzeko eskatu zuen, haren zortasun-zerrendaren zabalkuntzak eraginpean hartutako ondasunak eta eskubideak premiaz okupatzeko; horretaz gain, zabalkuntza horren proiektua eta haren separatak erantsi zituen.

Bi.– Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUren eskaria jendaurrean jartzeko, honako aldizkari hauetan argitaratu zen iragarkia: 2011-08-31ko EHAA, 2011-07-18ko GAOn eta 2011-07-28ko El Diario Vasco egunkarian. Iragarkiarekin batera, enpresa horrek desjabetu beharrekotzat jotako ondasunen eta eskubideen zerrenda ere argitaratu zen.

Hiru.– 2011ko uztailaren 6an, Usurbilgo, Donostiako, Aiako, Zarauzko, Getariako, Zumaiko, Zestoako, Aizarnazabalgo eta Azpeitiko udaletara igorri zen iragarkia, udal horiek beren ediktu-tauletan erakusgai jar zezaten.

Lau.– 2011ko uztailaren 6an, aurkezturiko proiektuaren separatak igorri ziren Usurbilgo, Donostiako, Aiako, Zarauzko, Getariako, Zumaiko, Zestoako, Aizarnazabalgo eta Azpeitiko udaletara, eskariarekin ados ote zeuden, edo aitzitik, kontra ote zeuden adierazteko, eta, hala bazegokion, behar ziren baldintza teknikoak ezartzeko eskatuz; 2011ko irailaren 27an, Usurbilgo, Donostiako, Aiako, Zarauzko, Getariako, Zestoako eta Azpeitiko udaletara berriz igorri zen eskari hori.

Bost.– 2011ko uztailaren 6an, aurkezturiko proiektuaren separatak igorri ziren Uraren Euskal Agentziara, Eusko Trenbide Sarera eta Gipuzkoako Foru Aldundira, eskariarekin ados ote zeuden, edo aitzitik, kontra ote zeuden adierazteko eta, hala bazegokion, behar ziren baldintza teknikoak ezartzeko eskatuz. 2011ko irailaren 27an, Uraren Euskal Agentziara eta Gipuzkoako Foru Aldundira berriz igorri zen eskari hori.

Sei.– Ados ote zeuden, edo aitzitik, kontra ote zeuden eskatzeari dagokionez, Aiako, Aizarnazabalgo eta Azpeitiko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Zuzendaritza Nagusiak aurkezturiko proiektuaren aldeko txostena eman zuten, Donostiako, Getariako eta Zestoako udalek, berriz, ez zuten erantzun, eta Usurbilgo, Zarauzko eta Zumaiko udalek eta Euskal Trenbide Sareak, azkenik, aurkezturiko proiektuarekin ados zeudela adierazi zuten, baina baldintza jakin batzuk ezarri zituzten.

Zazpi.– 2011ko urriaren 21ean, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresara igorri ziren arestian aipaturiko udalek eta erakundeek aurkezturiko baldintzak. Horri erantzunez, Euskal Trenbide Sarearen eta Zarauzko eta Zumaiko udalen baldintzekin bat zetorrela adierazi zuen enpresak, 2011-11-15ean, eta Zumaiari dagokionez, zera adierazi zuen, baldintzetan adierazitako tokiak proiektutik kanpo geratu direla, Batasunaren Garrantzizko Leku gisa (BGL) katalogatuta daudelako.

Usurbilgo Udalak aurkezturiko baldintzei dagokienez, enpresa eskatzaileak honako hau adierazi zuen laburbilduz: Olabarrietako inguruarekin eta bideekin loturiko baldintzak onartzen ditu, eta, hortaz, lanak egiten dituzten langileei jakinaraziko die toki horretan instalazioa gauzatzeko mozketak egitea debekatuta dagoela; baso-birlandaketako lanen gaineko baldintzei dagokienez, lan horiek egitea Iberdrola Distribución Elécrica SAU enpresaren eskumena ez dela adierazi zuen, Eusko Jaurlaritzaren 2011-03-8ko Ebazpenean –goi-tentsioko linea elektrikoak zuhaiztietatik igarotzeko berariazko baldintzak ezartzen dituen ebazpenean, alegia– ez baita agertzen derrigorrezkotasun hori; nolanahi ere, arestian aipaturiko Ebazpena derrigorrean bete behar du Enpresak.

Zortzi.– Jendaurrean iragarkia jartzeko epearen barruan, M.ª Jesús Aramburu Alcorta andreak, Jon Ander Leizaola Mc.Fadyen jaunak eta Borbrugon SL enpresak sinaturiko alegazio-idazkiak aurkeztu ziren; laburbilduz, honako hau adierazten zuten idazki horietan:

– M.ª Jesús Aramburu Alcorta andreak 60. zenbakiko onibarrari dagokionez adierazten duenez, lurzati horretako zuhaitzek ez dute eraginik proiektuan, linea elektrikoa 57. zenbakiko onibarretik igarotzen delako, eta 57. zenbakiko onibarra 60. zenbakikoa baino kota altuagoan dagoenez, alde handia dagoelako bi onibarren mailen artean.

– M.ª Jesús Aramburu Alcorta andreak 60. zenbakiko onibarrean kokaturiko iturriari dagokionez adierazten duenez, iturriaren kanalizazioa 57. zenbakiko eta 58. zenbakiko onibarretara ere hedatzen da, eta proiektuan markaturiko bidearen ertzetik doa hainbat puntutan; halaber, bidea gehiegi ez aldatzeko eta obrak makineria astuna txertatu gabe egikaritzeko ere eskatzen du, betiere uraren kanalizaziorako ondorio negatiboak saiheste aldera.

– J. Ander Leizaola Mc. Fadyen jaunak 1034. zenbakiko onibarrari dagokionez adierazten duenez, babes-eremua ez dago zertan zabaldu. Izan ere, lineatik 4 bat metrora 2 zuhaitz daude, beraiek moztuko dituzte 2 zuhaitz horiek udazkena baino lehen, eta gainerako zuhaitzak lineatik 10 metrora baino gehiagora daude; 1030. zenbakiko onibarrari dagokionez, jabearen izena berrikusteko eskatzen du, onibar hori ez baitzen J. Ander Leizaola Mc. Fadyen jaunaren aitarena.

– Borbrugon SL enpresak dio zuhaitzak mozteak edo ebakitzeak bere jabetzako 102. zenbakiko onibarrean kokaturiko zuhaitzetan kalte berreskuraezina eragingo duela (horietako askok ehun urtetik gora dituzte), eta lanak saihesteko edota beste neurriren batekin ordezteko eskatzen du.

Bederatzi.– 2011ko urriaren 21ean, M.ª Jesús Aramburu Alcorta andreak aurkezturiko alegazioak igorri ziren Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresara, eta alegazio horiek onartzen zituela erantzun zuen enpresa horrek, baita 60. zenbakiko onibarra proiektutik desafektatuko duela argitu ere, betiere distantziak ez badu arriskuan jartzen linea elektrikoaren funtzionamendua, eta 2011-03-8ko Ebazpena errespetatu behar dela kontuan hartuz.

Hamar.– 2011ko urriaren 21ean, Jon Ander Leizaola Mc.Fadyen jaunak aurkezturiko alegazioak igorri ziren Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresara, eta alegazio horiek onartzen zituela erantzun zuen enpresa horrek, baita honako hau argitu ere: batetik, 1034. zenbakiko lurzatian lurzati horretatik gertuen dagoen eroaletik 9 metro baino gehiagoko distantziara dauden zuhaitzak

ez direla ezabatuko, eta bestetik, 1030.ari dagokionez, haren titulartasunarekin loturiko zuzenketak egingo dituztela.

Hamaika.– 2011ko urriaren 21ean, Borbrugon SL enpresak aurkezturiko alegazioak igorri ziren Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresara. Alegazio horiei erantzunez, enpresa eskatzaileak adierazi zuen Eusko Jaurlaritzaren 2011-03-8ko Ebazpenaren arabera 102. zenbakiko lurzatiak ez duela ingurumeneko eremu sentikorraren kalifikazioa, eta honenbestez, Eusko Jaurlaritzaren 2011-03-8ko Ebazpenaren –hots, goi-tentsioko linea elektrikoak zuhaiztietatik igarotzeko berariazko baldintzak ezartzen dituen Ebazpenaren– 3. puntua aplikatu behar dela eta ezin dela salbuespenik egin zuhaitzen adinari edo espezieari dagokienez, betiere Administrazio eskudunak kontrakoa adierazten ez badu.

Hamabi.– Eraginpekoek aurkezturiko alegazioak eta eraginpeko udalek eta erakundeek aurkezturiko baldintzak aztertu dira, baita enpresa eskatzaileak horiei emandako erantzuna ere, eta Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak horiei behar bezala erantzun diela ondorioztatu da.

OINARRI JURIDIKOAK

Bat.– Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan, nahitaezko desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legean, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan, goi-tentsioko linea elektrikoak zuhaiztietatik igarotzeko berariazko baldintzak ezartzen dituen Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpenean eta bat datozen gainerako legeetan agindutako erregelamendu-izapideak bete dira espedientean.

Bi.– Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009-09-24ko EHAA) emandako esleipenei jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DU

Usurbilgo, Donostiako, Aiako, Zarauzko, Getariako, Zumaiko, Zestoako, Aizarnazabalgo eta Azpeitiko udalerrietan Usurbil-Lasao 30 kV-ko aireko linea elektrikoa eta horren deribazioak zortasun-zerrendaren zabalkuntzaren ondorioetarako onura publikokotzat deklaratzea; zabalkuntza horren ezaugarri nagusiak aurkezturiko proiektuan deskribatzen dira.

Deklarazio horrek berarekin ekarriko du, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan ezarritakoa betez, ondasunak okupatu beharra edo eraginpeko eskubideez jabetzea, horien premiazko okupazioa inplikatuta, eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluak xedatzen duen Premiazko Okupazioko Deklaraziorako ondorioak zehaztuta, lege horren 53. artikuluak erregistroari begira dituen ondorioetarako.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 6a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
JORGE LETAMENDIA BELZUNCE.